Beste behin ere, hain ezaguna dugun alegia klasikoaren bertsio bat dugu esku artean. Ingelesez, XIX. mendean jaso zen idatziz lehenengoz. Denok dakigun bezala, hiru txerrikume, amaren etxea utzi, eta basora joaten dira bizitzera. Bakoitzak bere etxea eraikitzen du; txikienak lastozkoa, ertainak egurrezkoa eta nagusiak harri eta adreiluzkoa. Otsoa etortzen denean, putz eginez anaia gazte bien etxeak botatzen ditu, baina nagusiarena, ordea, ezin du suntsitu. Otsoa, amorrutik beterik, tximiniatik behera sartzen da txerrikumeak jateko asmoz, baina ezustekoa jasotzen du. Azkenean, otsoak ihes egiten du, eta hiru txerrikumeak zorientsu biziko dira aurrerantzean elkarrekin.

Xosé Ballesterosen bertsio honetan, gaur egungo irakurleei modu bikainean egokitua dago ipuin klasikoa. Idazkera samur, azkar eta erritmoz josiak istorioa bizitzen laguntzen dio haurrari.

Betiko «hiru txerrixo»en irakaspena mantentzen da, hau da, lanaren eta ahaleginaren garrantzia zenbait egoerari aurre egiteko. Horrez gainera, heldutasunak ematen duen jakintza eta familiaritatekoen babesa ere islatzen dira. Gainera, arazoei aurre egiteko erakusten duten buruargitasuna txalogarria da.

Irudiei dagokienez, Marco Somà ilustratzaile italiarrak lan bikaina egin du. Izan ere, protagonistek –hau da, animaliek– pertsonen ezaugarriak dituzte irudietan; ez bakarrik janzkera edo erabiltzen dituzten tresnen aldetik, beren portaeretan, aurpegi adierazpenetan eta abarretan ere islatzen baita bakoitzaren izaera.

Gainera, irakurlearen gozamenerako, irudiak xehetasunez josiak daude: begirada bakoitzean zerbait ezberdina aurkituko dugu.

Bukatzeko, album eder honetan gaurkotua aurkitzen dugun ipuin klasikoan, helduok ere aukera paregabea izan dezakegu gure haurtzaroko istoriotxo bat hurrengo belaunaldiei transmititzeko eta elkarrekin gozatzeko.

4 urtetik aurrera

Blake, Quentin

Angelika milapatrikaren patrikak

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2016

ISBN 978-84-7681-948-7

Angelikaren albumeko irudiak liburua zabaltzera bultzatuko zaitu. Hasierako begiradan, Angelika nor den jakin nahiko duzu, eta, konturatu gabe, bera imajinatzen hasiko zara. Protagonista bi ume irribarretsuri eskua emanda ageri da, eta poltsikoz beteriko beroki arrosa bat darama jantzita; irudiak ederki islatzen du beraren nortasun alai eta jostaria.

Behin liburua zabaltzen dugunean eta Angelika patriketatik gauzak ateratzen hasten denean, ezin izango diogu liburuari begirik kendu. Irudimenetik pasatzen zaion edozer aterako du: saguak, aterkiak (euria hasten duenerako), krokodiloak... denetik. Hala, istorioak aurrera egin ahala, irudimena erabiltzera gonbidatuko du hartzailea, zer objektu aterako duen asma dezan. Umeek aukera izango dute irudimena aske erabiltzeko, eta, bidean, erraz aurreikusten diren gauzak eta ustekabekoak ederki tartekatzen dira.

Istorio sinplea, marrazki bizi koloretsuak eta testu errimaduna erabiliz, erritmoz eta irudimenez betetako album bat osatu du Quentin Blakek. Idazle ona da Blake, eta, irudiei erritmoa gehitzeko, testu errimatua erabiltzen du.

Album honek badu gatza eta piperra. Etxean edo eskolan, bakarrik edo taldean, Angelikaren energiaz, txorakeriez eta sentikortasunaz blai egingo zara, eta litekeena da irakurri bitartean eskuak patriketan sartu eta jolasten jarraitzea, bai helduek, bai umeek.

Donaldson, Julia

Grufaloa

Ilustratzailea: Axel Scheffler

Itzultzailea: Amets Santxez

Madrid: Bruño, 2016

ISBN 978-84-696-0329-1

Istorio dibertigarri baten aurrean gaude. Egitura linealak eta ilustrazio koloretsu zein adierazkorrek gozotasun berezia ematen diote album zoragarri honi. Alegia klasikoetan oinarrituriko kontakizun bat da eta, era berean, gai unibertsalak jorratzen ditu, hala nola ausardia, beldurra, azkartasuna eta azpijokoa.

Ipuin honetako protagonistak, saguak, bere etsaien amarruetatik onik ateratzea lortuko du, eta, horretarako, grazia bereziarekin deskribaturik ageri den pertsonaia batez baliatuko da; grufalo beldurgarriaz, alegia. Imajinaziotik sortutako animalia lazgarri horrek bizia hartzen duenean, ordea, inteligentzia baliatu beharko du berriz, eta, oraingoan ere, garaile aterako da. Egileak modu bikainean deskribatzen du saguak nola

aurre egiten dien egoerei, eta hauxe izango litzateke irakaspenik handiena: inteligentzia baliatzea indarraren gainetik. Horretarako, hizkuntza erraza eta esaldi ulerkorrak baliatu ditu egileak, eta tonu egokia eman dio kontakizunari. Ezbairik gabe, album gogoangarri honek ume zein helduen gozamina piztea lortuko du.

Martinez Ortiz, Isaak

Zerua gris dago

Ilustratzailea: Liébana Goñi

Arre: Pamiela, 2016

ISBN 978-84-7681-955-5

Elurra ari du herrian. Hau isiltasuna. Plazaren zurtasunean, ume baten pausoak. Bat-batean, zelako emozioa! Plazaren bestaldean, beste haur bat. Bukatu da bakardadea, bukatu da isiltasuna. Baina a ze disgustua! Bata mutila eta bestea neska baitira. Alabaina, keinu bakar bat aski da beren artean konplizitate eta adiskidetasuna sortzeko, aurreiritzien eta genero bereizkeriaren gainetik.

Zenbat xehetasun Liébana Goñiren ilustrazioetan. Koloretsuak eta biziak dira; bi orrialdetan zabaltzen zaizkigu, eta elurraren zurtasunak hartzen du protagonismoa koloreen artean. Ehundura bat baino gehiago eta teknika berriak erabili ditu ilustratzaileak, eta perspektibaz ere baliatu da. Ilustrazioen gainean ezarrita, Isaak Martinezen testu soila, *sinpletasuna konplexutasuna baino esanguratsuagoa izan badaitekeela*, berak dioen bezala. Eta hala da. Esaldi gutxi eta laburrak erabiltzen ditu, isiltasuna urratu nahi ez balu bezala, askotariko tokietan kokatuta, han eta hemen, elur malutak jausten diren eran, eta onomatopeia esanguratsuak erabiliz; hori guztia ilustrazioekin primeran uztartuta.

Liébana Goñik eta Isaak Martinezek elkarrekin eginiko lehen lana da, eta konposizio bikaina egin dute, bai horixe. Liburuak 2016ko Etxepare saria irabazi zuen.

Gogoeta eta plazer estetikoak eskaintzen dizkigun album bat, azken batean.

Mckee, David

Elmer berriro ere

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Erein; Iruñea: Igela, 2016

ISBN 978-84-9746-997-5

Elmerren lehenengo liburua 1968an argitaratu zuten, Erresuma Batuan, eta, orduetik hona, hainbat abentura bizi izan ditu, munduan zehar bidaiatuz. Erein eta Igela argitaletxeek, 2012an hasitako lanari jarraituz, Elmer elefante koloretsuaren bigarren albuma dakarkigute: *Elmer berriro ere*.

Ondo ezagutzen dugu Elmer aurreko liburutik ere. Elmer ez da beste elefanteak bezalakoa; ortzadarra bezain koloretsua da, eta horrek –ezberdin izateak, alegia–

eragina du bere izaeran: antiheroiek bezala, umorea erabiltzen du bere konplexuei aurre egiteko.

Lehenengo liburuan, taldean onartua eta maitatua izaten bukatzen du gure protagonistak, eta, bigarren honetan, Elmer are seguruago sentitzen denez, elkarrekiko konfiantza areagotzen da, eta txantxak handiagoak dira.

David Mckeek aurreko liburuko zenbait elementu errepikatzen dituen arren –hots, moxorroa, ura, asperraldia...–, Elmerrek prestatutako trikimailua sofistikatuagoa da, konplize baten laguntza behar duelako eta jolasari bigarren buelta bat ematen diolako. Irakurlea bera nahastea lortuko du, baina baita haren konplizitatea ere.

Kalitatezko ilustrazioez lagunduta, mami handiko istorioa izateaz gainera, jostaria eta dibertigarria da David Mckee idazle eta ilustratzailearen albuma.

Aniztasuna eta norberaren banakotasuna goraiatzeko, murgil zaitez gogoz Elmerren mundu koloretsuan.

Murphy, Jill

Bost minutuko lasaialdia

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela, 2016

ISBN 978-84-7681-938-8

Eguna hasi da, eta etxeko txikiak gosaltzen ari dira, baina umeak zalapartatsuak dira, jostalariak, bizitasunez beteak, geldiezinak, eta, noski, ordurako, sukaldea hankaz gora dago: a zer anabasa, etxeko lanak ez dira sekula bukatzen! Itzel amak *bost minutuko lasaialdia* behar du, berak bakarrik egon nahi du; orduan, umeak sukaldean uztea erabaki eta bainuontzi goxo eta apartsu bat prestatuko du.

Murphy idazle eta ilustratzaile ingelesaren albuma 1986an argitaratu zen lehen aldiz, *The Large Family* (Familia Handia, protagonistak elefanteak baitira) izeneko bilduma ezagunaren barruan, eta, orain, 30 urte betetzean, Kalandraka eta Pamiela argitaletxeek elkarlanean berreskuratu dute album sinpatiko hau, ume eta helduen gozamenerako. Zein gurasok ez du bere burua identifikatuko Itzel amarekin!

Eguneroko gertaeren kontakizun samur hau xehetasunez beteriko ilustrazio guztiz adierazgarri eta umoretsuekin lagunduta dator. Irribarrea piztuko zaizue!

6 urtetik aurrera

Goldstyn, Jacques

Arbolandi

Itzultzailea: Aritz Galarraga

San Feliu de Guíxols: Tramuntana, 2016

ISBN 97884-16578-31-3

Liburu honen kredituen orrialdean, eskaintza hau irakur dezakegu: «Gure aitari, zuhaitzera igotzen erakutsi zidalako». Eta, hain zuzen ere, gure narratzaile gazteak bere zuhaitzera –Arbolandira– igotzea du maitean, gauza guztien artean.

Istoria mutiko bakarti batek kontaktzen du; sormen handikoa da bera, eta ez dio ardura desberdina izatea. Udaberria noiz iritsiko zain dago, Arbolandiren oparotasunaz gozatzeko. Horren esperoan dagoelarik, naturarekiko eta zuhaitzarekiko mirespena erakusten du, irudi eta deskribapen laburren bitartez. Era berean, bere herriaren erretratu zorrotz eta umoretsua egiten du, aurreiritzitan jausi gabe, herriko beste umeak ez bezala, barre egingo baitute beraren lepotik.

Baina, udaberria heltzean, Arbolandi hil egiten da. Protagonistak modu sinboliko eta original batean ematen dio azken agurra. Herritar guztiekin partekatuko du omenaldia; gustura prestatuko du ekitaldia, eta umorea eta sentimenduekiko zintzotasuna nagusituko dira.

Komiki estiloko irudiek erritmo bizia ematen diote narrazioari. Jacques Goldstynek, geologoa ikasketaz eta komikilaria lanbidez, marrazki azkarrak egin ditu, lumaz, kolore pixka batekin lagunduz eta zenbait teknika erabiliz. Lan honetan, irudia eta testua uztartu eta oso joko erakargarria sortzen du bion artean.

Grazia, poesia eta adierazgarritasun handiz kontatutako istorioa da.

Edizio zainduko liburu-album hau zabaltzera gonbidatzen zaituztegu, arrantzatzea, iluntzean hilerrian patinetean ibiltzea eta kozinatzea gustuko duen mutiko libre hau ezagutzeko.

Kazabon, Antton

Piku azpian

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Berriozar: Denonartean, 2016

ISBN 978-84-16791-28-6

Piku azpian liburua Udazkeneko Jolasak bildumako lehenengo liburua da.

Olerkien bidez, istorio hunkigarri bat kontaktzen du idazleak.

Lehenengo kapituluetan, istorioko pertsonaiak aurkezten ditu: pikondoa, txolarreak, Ixtoan ehiztaria. Pertsonaia nagusiak ezagutu ondoren, ipuinaren korapilo dramatikoa garatzen du eta, bukatzeko, amaiera zoriontsu bat.

Narrazioan zehar, hainbat esperientzia eta emozio dasta ditzakegu: txolarre amaren beldurrak eta maitasuna; txolarre txikien ausardia, jakin-minaren eta zuhurtzia faltaren ondorioak; pikondoaren ugaritasuna eta pikuen usaina, zaporea eta kolorea; Ixtoan ehiztariaren zaletasuna eta zorrozetasuna.

Natura bizi, usaindu, ukitu, esperimentatzen dugu: izakien barne bizitza, zikloak, eta landareen, animalien eta gizakien arteko harremanak. Narrazio poetiko batean murgilduko gara, eta dramak hartuko gaitu, bihotza zimurtu arte.

Mitxelenaren ilustrazioak bat datoz testu poetikoarekin: olerkiak irudiak dira, eta ilustrazioak, hitzak.

Poesian murgilduko gara, poesia gorpuztuan, gure azalean sinboloen samurtasuna sentituz, eta imajinatuz, kantatuz eta dantzatuz: «Piku beltz-beltzak / Dilindan kulunkari / Haizearen konpasera / Airean dantzari».

Poesia kantu ekologiko bihurtzen da, eta deiadar ekologikoa, poesia.

Poesiaz egarri garenok, eta haur txikiek bereziki, opari ederra dugu esku artean.

Papatheodoulou, Antonis

Azken gutuna

Irudiak: Iris Samartzi, 2016

Itzulpena: Fernando Rey

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2016

ISBN 978-84-7681-957-9

Telefonorik eta posta elektronikorik ez zegoen garaian, postariak banatzen zituen berriak, onak batzuetan eta txarrak besteetan. 50 urte lanean egon ondoren, Bazter postariak bere azken gutuna banatu behar du, eta hori kontatzen da, hain zuzen, liburu honetan.

Greziako uharte batean kokatzen da istorioa, hau da, Mediterraneoko koloreak dira nagusi. Urdinak eta harearen koloreak ederki islatzen dute irlako eguzkiaren argitasun berezia. Collage erako ilustrazioak postarien lanbidean ohikoak diren elementuz eginak daude: zigiluak, gutun-azalak, eskuizkribuak... Xehetasunez beteriko ilustrazio atsegin eta ederrak.

Lanbide bati egindako omenaldi goxoa eta nostalgikoa eskaintzen digu liburuak. Beharbada, haurrei azaldu beharko diegu nola aldatu diren komunikazioaren bideak azken urteotan, baina, hala ere, merezi du istorio xume eta hunkigarri honetan murgiltzea.

Horrez gainera, aipamen berezia merezi du formatuak. Soka batez itxita dagoen gutun-azal bat ireki behar dugu liburuan sartzeko. Azken finean, maina handiz egindako liburu xarmanta.

Patacrua

Baionako alarguna

Ilustratzailea: Javier Solchaga

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Tafalla: Txalaparta, 2016 (Txo!)

ISBN 978-84-16350-46-9

Hurrekin jolasteko eta partekatzeko aukera paregabea eskaintzen digu europar tradizioaren eragin nabarmeneko ipuin honek. Egilea egitura zirkularraz baliatzen da kontakizuna gorpuzteko, eta, errepikapenen bitartez, konexioak eta erlazioak egiten ditu, irakurlearen arreta eta jakin-mina pizteko.

Aipamen berezia merezi du Javier Solchaga ilustratzailearen lanak. Elementu birziklatuz baliatuta, perspektiba era bikainean lantzea lortzen du. Horretarako, «eta zer da hau?» galdera errepikakorraren bitartez, gonbita egiten dio irakurleari hurrengo orrialdean agertuko diren elementuak asma ditzan. Aipatu behar da une batzuetan zail suertatzen direla konexioak, baina, ezbairik gabe, imajinazioa eta perspektiba lantzeko aukera ezin hobea da, molde ezberdin eta original bat eskaintzen duen heinean.

Ipuinean murgiltzen diren irakurle ume zein helduek ustekabe bat baino gehiago aurkituko dute Txalapartaren eskutik datorkigun edizio zaindu honetan.

10 urtetik aurrera

Kinney, Jeff

Gizajo baten egunkaria: bikotean hiru

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2016 (Greg Heffleyren egunerokoa; 7)

ISBN 978-84-9868-391-2

Kinney, Jeff

Gizajo baten egunkaria: etxean itxita

Itzultzailea: Aritz Branton

Irun: Alberdania, 2016 (Greg Heffleyren egunerokoa; 6)

ISBN 978-84-9868-390-5

Dagoeneko euskaratu dira *Gizajo baten egunkaria* saileko seigarren eta zazpigarren aleak; alegia, *Etxean itxita* eta *Bikotean hiru*.

Liburuok mundu mailako ospea eman diote egileari. Idazle trebea dugu Jeff Kinney estatubatuarra. Greg-en istorioak agorrezinak dira; irudimena eta umorea narrazio

guztietan nabari dira, eta burutazio barregarri eta zoroak ez dira inoiz falta. Mutiko honen eguneroko gorabeherekin, kalitatezko liburu entretenigarri eta dibertigarriak egiteko formula bat asmatu du, duda barik. *Longseller* bilakatu dira dagoeneko.

Aurrekoetan bezala, honetan ere Greg da protagonista nagusia, eta haren abentura berriak kontatzen dizkigu, beti bezala xeblekeriaz beteak. Pertsonaia horren portaera ez da batere egokia, sarritan oso baldarra baita. Horregatik ez dago ondo ikusia eskolan, eta, ondorioz, lagun bakanak ditu, beraren tankerakoak. Beldurtia, alferra, berekoia, harroa, lotsagabea eta burugabea izan arren, ezin hobeto konektatzen du irakurlearekin, seguruenik ez duelako heroi batek bezala jokatzeko, eta hori bera da maitagarri egiten duena. Irakurleak berak bere hutsuneak hautemango ditu nerabe honengan, eta horretan datza liburuon arrakastaren gakoetako bat. Gainera, zuri-beltzeko marrazkiek osatzen dituzte istorioak; komiki erakoak dira, eta, nahiz eta xumeak izan, informazio bikaina eskaintzen dute, testuarekin batera narrazioa biribilduz.

Gregen jarraitzaileek gustura irakurriko dituzte azken bi tituluok, aurrekoen kalitate berberari eusten baitiote. Oraindik ezagutzen ez dutenak, berriz, garaiz dabilta Gregen munduan murgiltzeko: ez zaie damutuko!

14 urtetik aurrera

Port Lajoyeko sorgina

Ilustratzailea: Paul Caballero

Itzultzailea: Txaro Idiakez

Donostia: Elkar, 2016 (Xaguxar; 219)

ISBN 978-84-9027-610-5

Joyce Barkhouse (1913-2012) idazle kanadarrak haurrentzako hainbat liburu idatzi zituen, gehienak nobela historikoak. Azken urteetan, telesail bihurtu dituzte haren hainbat testu. Zenbait ikerketa egin ondoren, idazle kanadarrak elezahar ugari aurkitu zituen, batez ere XIX. mendearen hasieran misiolariak jaso eta itzulitako dokumentuetan. Haietariko batean oinarrituz idatzi zuen autoreak *Port Lajoyeko sorgina*.

Liburuaren euskarazko lehen edizioa 1990. urtean argitaratu zen (Elkarlanean), eta 2016ko argitalpen berrian ere Txilikuren hitzurre bera mantendu da.

Liburua hiru ataletan banatuta dago: hitzaurrea, narrazioa eta, amaieran, Medardus fraidearen azken aitortza, narrazioa ixteko.

Hitzaurrean, Txilikuk istorioa kokatzen du: Kanadako San Lorenzo badiaren kokapen geografikoa, mikmak indiarren jatorria, hizkuntza, jakintza eta ohiturak aipatzen ditu, eta, amaitzeko, Europatik heldutako kolonizatzaile eta misiolarien presioak eta biolentzia deskribatzen ditu. Testuinguru horretan, autoktonoek euskal arrantzaleekin topo egin, eta elkarri lagundu zioten balea- eta bakailao-kontuetan.

1720an, kolonizatzaileak inguru haietara heldu zirenean, Port Lajoy izena eman zioten inguru hari. Haien artean baziren emakume euskaldunak ere; tartean, Mari eta haren ama.

Port Lajoyko sorgina narrazioak mikmak indiarren kondaira bat du oinarri: «Mari ederra». Badira bertsio bat baino gehiago: haietariko batean, zoriontsu bizi ziren; beste batean, aitagarrebak gezi batez hiltzen du Mari, eta, bertsio honetan, sorgintzat hartu eta erre egiten dute. Esku artean daukagun narrazioa eskuizkribu batean oinarriturik idatzi zuen autoreak.

Hamazazpi urteko neska euskaldun eder bat, Mari, indiarrekin bizitzera joan eta haien buruzagiaren semearekin ezkontzen da. Marik bere ahalmen sendagarriak erabiltzen ditu besteei laguntzeko. Fraide batek, ordea, Mari atxilotu eta giltzapetzen du, sorginkeriatzat salatuta, eta sutan hiltzen da. Amaieran, fraideak, hiltzorian, aitortzen du betiko bizi nahi duela Mariren ondoan.

Narrazioa oso ondo irakurtzen da, eta gaztetxoak ondo murgilduko dira antzinako elezahar eta pertsonaien munduan.

Durruty, Begoña

Cherch'pas à comprendre! = Ez da konprenitzen ahal gerra!

Berriozar: Denonartean, 2016

ISBN 978-84-16791-12-5

Liburu honetan, autoreak Durruty familiaren historia hurbila kontatzen du. Hain zuzen, Frantziako eta Espainiako mugaren bi aldeetan bizi izan ziren, eta euskaldunak ziren, orain frantsesak, orain espainiarrak. Orain Frantziako gerretan derrigorrean inplikatuak (Gerla Handia, Bigarren Mundu Gerra, Indotxinakoa, Aljeriako Independentzia Gerra), orain Espainiako gerran eta frankismoan nahasiak.

Fikziorik ez dago, baina bai aitonaren (*aitetxi*) testigantzan eta alabak berarekin izandako solasaldietan oinarritutako narrazio poetiko bat.

Protagonista paraplegikoa da gaztetatik; ohean etzanda dago, eta oso adierazgarria da egoera horretan egonik *Marseillesa* abestea narrazioaren hasieran («*Aux armes, citoyens, / Fermez vos bataillons...*») eta bukaeran, berriz, beste hau, tristuraren eta minaren adierazgarri: «Milaka hildako, mutiko gazte kolpatuak, erotuak, emazteki bortxatuak, ume gaixoak, familia xehatuak! Hainbertze sufrimendu! Zertarako? *Cherch'pas à comprendre!* [...] *Aux larmes citoyens! Fermez vos bataillons!*».

Begoña Durrutyk narrazio historiko hunkigarria idatzi du. Zertarako hainbeste sufrimendu? Familiaren historia kontatuz, gerraren aurkako manifestu poetiko bat eraiki du. Fronte ugari dauzkagu irekiak gure munduan, non milioika gizaki odolustuta dauden, tinko adierazteko ez dugula gerrarik nahi.

Narrazioa ez da zaila, baina gutxieneko heldutasuna behar da perspektiba historikoa konprenitzeko. Bestalde, edizioa ederra da, eta Durrutyren ilustrazioek ondo laguntzen diote idatziari.

Zubizarreta, Patxi

Beroki gorria

Ilustratzailea: Yolanda Mosquera

Bilbo: Ibaizabal, 2016

ISBN 978-84-9106-266-0

Nola sentituko zinateke egunen batean etxera itzuli ezingo bazina? Nola sentituko ginateke egunen batean etxea utzi beharko bagenu, ezingo bagenu gogoko dugun guztia eta gurea den guztia eraman? Nola sentituko ginateke amari eta aitari agur esaterakoan? Nolakoak dira benetan errefuxiatuen kanpamentuak?

Egunkaria ireki, Interneten sartu edota telebista piztu, eta nonahi azalduko zaizkizu *errefuxiatu* hitza eta errefuxiatuen irudiak. Gerra, erbestea, itsasontziak, negarra, ihesa, amesgaiztoak, beldurra; hori guztia etortzen zaigu burura. Urrun samar ikusten badugu ere, euskaldunok ere bizi izan ditugu horrelako egoera latzak. Eta horren oroigarri dugu Patxi Zubizarretaren *Beroki gorria* albuma. 1936ko gerratik ihesi, Habana itsasontzian Santurtzitik Ingalaterrarako bidaia egin zuten 4.000 umeen historia islatzen du. Errefuxiatu euskaldunak, halaxe baitziren.

Zubizarretak ezin hobeto azaltzen du egoera hori, barnetik irtendako hizkuntza erabiliz; samurra, zuzena, zirrarragarria, poetikoa, irakurlea hunkitzailekoa. Narratzailea neskatala bat da, eta gerra haren begietatik ikusteak bihotza zimurtzen digu: «Guk betiko izena genuen, baina gutako bakoitzaren identifikazio txartelean zenbaki bat agertzen zen, zenbakia besterik ez». Edo beste adibide hau: «Gu itsasontziak eraman gintuen. Aita gerrak eraman zuen».

Egoera latz horren erdian, beroki gorria azaltzen zaigu, sinbolismoz beteriko irudi bat. Gerraren odola? Bihotzen taupada? Erresistentziaren ikurra? Txanogorritxori eginiko begi-keinu literarioa? Hainbeste arropa grisen artean, hainbeste min eta paisaia ilunen artean beroki gorriak duen indarra azpimarratzekoa da. Eta trebetasun handiz erabiltzen dute sinbologia hori, bai autoreak, baita ilustratzaileak ere.

Yolanda Mosqueraren collage irudiak originalak eta ezin aproposagoak dira egoera samingarri hori deskribatzeko. Kolore ilunak dira nagusi; garai hartako itxura deskribatu, eta zilegitasuna ematen diote istorioari.

Peru Abarka XI. Album Lehiaketako irabazle izan da liburua. Irakurketaz gozatzeko aukera ezin hobea gazte nahiz nagusientzat. Literatura lagungarri zaigu gure memoria historikoa berreskuratzeko edo freskatzeko. Baita bihotza hunkitzea ere. Pauso bat gehiago eman, eta saia gaitezen mundu berri bat sortzen, literatura ezaupidea baita.

Zerrenda Berezia

Añorga, Pello

Barruko leihoa

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Arre: Pamiela, 2016 (Haur literatura; 19)

ISBN 978-84-7681-930-2

Pello Añorgaren liburu bat hartzen dugunean, badakigu zerbait berezia dugula esku artean. Beti edo ia beti, bizitzako oinarrizko gaiak islatzen ditu: natura, heriotza, mina, bizipoza, tristura... Eta badakigu liburuak ARNASA emango digula; geure burua eta besteena hobeto ezagutzeko eta maitatzeko behar dugun arnasa («Har eta eman, arnasa berean, har eta eman harremanean»).

Hitz joko biribilak ditu ezaugarri Añorgak. Hitzaren bitartez («mintza, mintza, taupadetan mintza»), bere barruko leihoa zabaltzen digu, geurea ere ireki dezagun. Barruko sentimenduen korapiloak askatzeko giltza ematen digu era samur batean, ia konturatu gabe. HITZA du pospolo: «Barruko leihotik, kanpora hitza, barru-kanpoaren arteko mintza».

Leuna du idazkera, iradokitzailea, poesiarekiko amodioa sortzen duen horietakoa. Geure tristura erlatibizatzeke edo arintzeko balio duena. Geure poza handiagotzeko pilulatxo distiratsuk: IZARRAK («Izarrak piztu, izarrak piztu, barruko leihoan zaitez berriztu»).

Poesiaz gozatzeko aukera ezin hobea ematen digute Añorgak eta Mitxelenak. LURREAN ondo sustraitutako harreman estetikoa eta artistikoa duten seinale («Lurrean egon, lurrean egon, lurrean egonda zeruan egon»). Mitxelenaren pintzelkadek poemen arintasuna azpimarratzen dute. Inguru zuri handiak ikusten dira; irudiek eta hitzek *aire* zabala dute, irakurleek arnasa larritasunik gabe hartzeko edo.

Har ezazu, irakurle, liburu hau; patxadaz irakurri, gozatu, eta begiak itxi, eta *barruko leihoa* irekitzerakoan zer giro den ikusi.

Arrieta, Yolanda

Kulun-kuttunak

Ilustratzailea: Aitziber Alonso

Berriozar: Denonartean, 2016

ISBN 978-84-16791-19-4

Ahozko tradizioan oinarritutako album bat dugu honako hau. Haurrentzako lo kantak eta poesia gaurkotasun oparoz josi, berriak sortu, eta liburu berezi bat osatu du Yolanda Arrietak.

Eskertzekoa da berriz ere aukera izatea belaunaldiz belaunaldi gordetako altxorrez gozatzeko beren esentzia galdu gabe baina gaurkotasunez jantzita.

Aipagarria da nolako liburu original, eder eta dotorea osatu duen idazleak, Aitziber Alonsoren ilustrazio ederrez eta tradizioaren eta sortu berriaren arteko jokoaz lagundurik.

Oso gomendagarria da helduontzat ere, gure esku baitago liburu honen bidez betiko *jakinduriaren* literaturaren giltza ondorengoei ere iristea.

Bilbo, Leire

Xomorropoemak eta beste piztia batzuk

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Arre: Pamiela, 2016

ISBN 978-84-7681-963-0

Bilbo, Leire

Piztipoemak eta beste xomorro batzuk

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Arre: Pamiela, 2016

ISBN 978-84-7681-963-7

Izenburutik bertatik abiatuta, Leire Bilbok hitz joko baten bitartez egiten digu gonbita edizio zainduko eta ilustrazio ederrez hornitutako poema liburu hauetan murgil gaitezen. *Xomorropoemak* irakurle gazteagoei dago zuzendua; animaliek dute pisu nabarmenena, eta inurri, hontza, kilker, marigorringo eta bestelako animalia andana baten gorabeherak izango ditugu irakurgai. Aipatzekoa da poemek erakusten duten musikalitate berezia; errimari eta onomatopeiei esker, poemak oso aproposak dira haurrei kontatzeko, abestiak balira bezala, goxo-goxo eta xume-xume dasta ditzaten. Egitura aldetik, bi liburuek kapitulu berberak dituzte: «Poema hegodunak», «Uretako poemak», «Narras-marraz poemak» eta «Poema orrolariak». *Piztipoemak* liburuan, berriz, beste tonu bat sumatzen da; esan genezake maila jasoagoa islatzen duela, egilearen marka den musikalitatearen zantzurik ere galdu gabe. Hona liburua zabaltzen duen lehen poema: «Munduaren mintzoa: Mundua mundu egin zenean, hiztunak isildu eta mutuek hitza hartu zuten. Orduan, harrien barrea gorde zuen igelak. Zuhaitzen berbaroa beleak. Belarraren mintzoa ardiak. Errekaren kantua izokinak. Eta ordutik gaurdaino, batzuk zein besteek, hizkuntza handi eta txikiak jagoten dituzte». Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi Maite Mutuberriaren lan bikaina. Irudiek konposizio berezia dute, eta askatasun osoz mugitzen dira orrialdeetan barna, collage bereziak osatuz, ukitu pertsonal eta berezi batez. Poesiaren mundu miragarrian murgiltzeko ohiturarik ez duen irakurleak aukera paregabea izango du poema eder eta gozagarriak dastatzeko. Ez utzi aukera paregabea honi ihes egiten.

Cano, Harkaitz

Zer demontre dago aulkien azpian?

Ilustratzailea: Lorena Martinez

Arre: Pamiela, 2016

ISBN 978-84-7681-961-6

Merezi du, bai, aulkian eseri eta liburu honen barruan dagoen paradisia deskubritzea. Azpian, gainean, alboan aurki daitekeena benetako literatura baita. Eta zergatik diogu hori? Literatura letrekin egindako marrazki edo irudi gisa kalifika daitekeelako, agian. Eta Harkaitz Canok horixe eskaini digulako oraingo honetan ere: hitzez osatutako hogeita hiru filmtxo kitzikagarri eta zoragarri. Letretan maisu izan behar da hain hitz gutxirekin hainbeste esateko, irakurlea irakurritakoarekin identifikatzeko eta irribarretsu jartzeko, edo pentsakor. Eta bai, irakurle, ipuinok zure irudimena, irribarrea eta irakurzaletasuna piztuko dituzte. Ziur! Bata bestearen atzetik irakurtzeko gogo zoroa eta, aldi berean, baita patxadaz hausnarketa sakonak egiteko beharra ere.

Bestalde, Lorena Martinezen ilustrazioek testuaren tonua azpimarratzen dute, ipuinen ukitu surrealista indartuz eta ezkutuan dauden mezuak iradokiz. Minimalistak eta koloretsuak dira irudiak, edozein paretatan koadrotxotan jartzeko horietakoak. Testuak eta irudiak erritmo berean egiten dute dantza. Bai, dantza erritmikoa, edizio zaindu baten barruan.

Jolasa, lilura, etika, kritika, irakurtzeko plazera... Idazleak bere azken ipuinean (*Zoriona eta elurra*) kontatzen digunaren ildotik, demagun egunkari batek jendeari galdetzen diola zer ote den zoriona: Canok egina du bere aukera zoragarria. Gure zoriona, ordea, euskal literaturan halako liburu dotore bat aurkitzean datza; dotorea testutan, iruditzen eta edizioan.

Hori da, hain zuzen, gu zoriontsu egiten gaituena.

Kochka

Nils Holgerssonen bidaia miresgarria

Selma Lagerlöfen kontakizunaren egokitzapena

Ilustratzailea: Olivier Latyk

Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta

Bilbo: Ibaizabal, 2016

ISBN 978-84-9106-264-6

Selma Lagerlöfen liburuaren egokitzapena dugu honako hau. Selma Lagerlöf (1858-1940) idazle suediarra literaturako Nobel saria jaso zuen lehen emakumea izan zen (1909an).

Obra bi zatitan argitaratu zen, 1906an lehena eta 1907an bigarrena. Hasiera batean, idazleak –ordurako oso ezaguna baitzen– Suediako geografiari buruzko liburu bat

idazteko enkargua jaso zuen, hango ume eta gazteek Suediako geografia ikas zezaten. Bete zuen lana, bai, baina ez hori bakarrik, liburu sakon eta ederra idatzi baitzuen, Rudyard Kiplingen animaliei buruzko ipuinetan inspiraturik, errealitatea eta fantasia nahasiz: haren libururik ezagunenetakoa bihurtu zen, literaturako klasiko bat.

Orain esku artean daukagun liburua, esan bezala, moldaketa bat da, Kochka idazle frantziarraren eskutik datorkiguna.

Liburuko protagonista Nils da, mutiko berekoi, bihurri eta lotsagabe bat. Iratxo batek, haren gaiztakeriaz nekatuta, txiki-txikia bihurtu du Nils, Erpurutxo bezala; alabaina, animaliekin komunikatzeko ahalmena du eta, etxeko antzara baten gainean, Laponiara migratzen ari diren antzara basatiekin elkartuko da: Suedian zehar bidaiatu, eta hainbat tokitako paisaia, ohiturak, elezaharrak eta mitologia ezagutuko ditu. Hau da, bizipen eta esperientzia ugari izango ditu. Azken finean, bidaiatzea ikastea da Nilsentzat, eta haren bilakaeraren lekuko izango gara. Amaiera zoriontsu eta biribila oparituko digu egileak.

Esan beharra dago, hala ere, idazlearen testuinguru historikoa kontuan izanda liburuak ukitu morala eduki arren, maitasuna, laguntasuna, ahaleginaren balioa, ontasuna eta naturarekiko maitasuna direla liburuaren oinarritzko «tonuak» hogeita bi kontakizunetan.

Olivier Lattyken ilustrazioek bikain girotzen dute narrazioa; batzuk testuekin batera datoz eta beste batzuk, berriz, bi orrialdetan zabaltzen diren irudi ederrak dira. Koloreek iparraldeko lurralderantz hurbiltzen gaituzte, zeruaren eta izotzaren urdina, eguzkiaren gorrixka eta zuria erabiltzen baititu. Biribiltzeko, zoragarri trokelatutako sei orrialderekin apainduta dago liburua: edizio dotorea eta zoragarria, duda barik.

Bidaia atseginagoa egiteko, liburuaren bukaeran, Suediako mapa aurkitzen dugu, eta horrek irakurketa errazten digu Suedia ezagutzen ez dugunoi.

Selma Lagerlöfeni ongi merezitako omenaldia eskaintzen dion liburu eder baten aurrean gaude; eskertuak gaude Ibaizabal argitaletxearekin, haren obraren berri izateko aukera emateagatik.